



■ KIROLDEGIA

Ordutegi berezia

Kiroldegia itxita egongo da gaur, bihar, hilak 31 eta urtarri-laren 1ean. Bestalde, larunbatean igerilekua itxita egongo da, Hernani Saria txapelketa dela-eta; eta Errege egunean jai-egunetako ordutegia izango du: goizez egongo da irekita. ■

■ AEK

Mariskada zozketan, gaur

Hernanialdeko AEK-k mariskada zozketatuko du gaur, 12:00etatik 14:00etara Plaza Berrin, eta 19:00etatik 21:00etara Plazan. ■

■ LUDOTEKA

Ostiralean azken saioa

Ostiralean jolaserako azken aukera izango dute gaztetxoek, kiroldegiko ludotekan, 10:00etatik 13:00etara, doan. Bestalde, astelehenean 6 eta 11 urte bitartekoentzat tailerrak antolatu dira, 16:30etatik 18:30etara udaletxeko arkupeetan. ■

■ ITURRITXO

Haur txokoa, etzi eta etzidamu

Gabonetako haur txokoa antolatu ditu Iturritxo elkarteak, ostiral eta larunbaterako, 10:30etatik 13:00etara. ■

■ GIBELALDE

Ipuinak, etzi

Ostiralean Apaxi ipuin kontalariaren saioa izango da, 18:00etan hasita, Gibelalde auzo elkartearen. Bestalde, urtarri-laren 2an haurrentzako zinema izango da, 18:00etan. ■

■ BERTSOLATA

Puntako bertso saioa, etzidamu

Larunbatean puntako bertsolariak ariko dira, 19:30etan Biterin: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Nerea Elustondo, Arnaitz Lasarte eta Jexux Mari Irazu. Gai-jartzaile Agin Laburu ariko da. Sarrerak egunean jarriko dira salgai. ■

■ GABONAK

Badator Olentzero, musikak lagunduta!

Arratsaldeko 18:00etan iritsiko da Olentzero Plazara. Aurretik, goiz eta arratsalde, kalez kale eta baseriz baserri kantuan ariko dira herriko ikasle eta hainbat elkartetako partaideak.

AZKENEAN iritsi da Eguberri bezpera! Arratsaldeko 18:00etan iritsiko da Olentzero Hernaniko Plazara, eta kalean barrena ibiliko da, herritarren azken desioak entzuten.

Aurretik, ordea, musika eta gabon doinuak izango dira nagusi, herriko kaleetan.

Goizean, ikasleen txanda

Egunaren aurreneko partean ikastoletako ikasleak aterako dira kaleak kantuan alaitzera. Goizeko 10:00etan Inmakuladako ikasleak abiatuko dira; 10:30etan, Urumeakoak; 11:00etan, Langile ikastolakoak; eta 11:45etan, Elizatxo ikastolakoak.

Arratsaldean, errondak, kontzertuak eta Olentzero

Arratsaldean musikak eta Olentzerok partekatuko dute protagonismoa. Eguerdiko 15:30etan Biterin elkartuko dira bertso eskolakoak, autobusa hartu eta baserri berrira buelta egiteko. Arratsaldeko 17:00etan, berriz, Parrokiko abesbatzak gabon kantuekin osatutako kontzertua emango du, Agustinetan.

Olentzero arratsaldeko 18:00etan iritsiko da Plazara, eta Ttarlako dantzariak lagunduta kalejiran ibiliko da. Tartean, 18:30etan, Kantuz abesbatzako kideak aterako dira errondan, Milagrosatik. Musika Banda, berriz, 20:00etan abiatuko da, Plazatik.

Presoen aldeko Olentzero

Iluntzeko 20:00etan presoen aldeko Olentzero aterako da Plazatik. Aurreko osteguneko Plenoan onartu zen mozioa,



Astelehenean ere kantatu eta jo zioten Olentzerori, 'Hernani' Musika Eskolako saxo, txistu eta abesbatzak.

senideek aurkeztutakoa, dispertsioaren aurka eta presoen eskubideen alde konpromisoa hartzekoa. Ekitaldi honetan eta datozenetan parte hartzeko deia luzatu zuten.

Eguberri eguneko alborada

Gabon gauean musika, eta Eguberri egunean gehiago. Bihar goizean 'Hernani' Musika Eskolako txistulariek alborada joko dute herriko auzo eta kaleetan barrena.

Gabonetako kontzertua, astelehenean

Pasa den astelehenean kontzertua eman zuten Milagrosan Hernani Musika Eskolako Hernasax taldeak, txistulariek eta abesbatzak. Jendeak gozatu ederra hartu zuen Gabon doinuekin. ■

Gabonetako bi ohar, Udalak

Zabor bilketaren ordutegian aldaketak izango dira. Bestalde, material piroteknikoarekin neurriak hartzeko eskatu dute.

HIRU egunetan aldaketak izango dira zabor bilketan. Gaur eta hilak 31n, organikoa lehenago jasoko dute, beraz, 22:00ak baino lehen atera behar da kuboak. Bestalde, ostiralean paper eta kartoi bilketa berezia egingo da goizean; 14:00ak baino lehen atera behar dira.

Material piroteknikoarekin kontuz

Babes Zibilak bidalitako oharra ere zabaldu du Udalak,

material piroteknikoaren erabileraren inguruan. Oharrean azaltzen du Hernanin ez dagoela horrelako materiala saltzeko baimenik duen dendarik, eta baimena duten tokietan bakarrik erosi daitekeela.

Bestalde, hainbat gomen-dio eman ditu: ez gorde horrelakoak poltsikoetan, ez manipulatu osagaiak, ez bota petardoak pertsona edo animaliei... Neurriak hartu eta arauak errespetatzeko dei egin dute. ■

OINDI

taberna
**NAGUSIA, 25
HERNANI**
943 557 509

**MARISCOS
HERNANI**

609 67 43 44
943 55 51 56

Mariskoan espezialistak

KALE NAGUSIA, 20
20120 HERNANI
GIPUZKOA

Adarraga

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

AMAI

TRINITY
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

Biesku Denda

Bigarren Eskuko Artikuluak

Gaurtik aurrera
ekarri dezakezu dendara
saldu nahi duzun hori

Kale Nagusia 58, behea, Hernani
Tlf. 943 05 53 03 Mug. 620 30 47 91
bieskudenda@gmail.com
www.facebook.com/bieskuDenda

TELEFONOAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 **DYA**: 943 464622 **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
Anbulatorioa: 943 006666 **Jokalari anonimoak**: 943 331103 **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
FARMAZIAK **Gaur**: Eguzte: **Odrozola URNIETA** Idiazabal, 18 **943 334014** • **Gauetz**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 **943 336077**
FARMAZIAK **Bihar**: Eguzte: **Urrutia** Etxeberri 1 **943 557738** • **Gauetz**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 **943 336077**

■ PSE-EE



Ricardo Crespo eta Iñaki Arriola (erdian), Hernaniko PSEko idazkari nagusiarekin eta zinegotzietan.

Kursaalera joateko deia, PSE-EEK

Hamaiketako baten bueltan, balantzea egin zuten alderdi kideek. Pedro Sanchezen agerraldira Kursaalera joateko deia ere egin zuten.

SANTO Tomas bezperan hamaiketako egin zuten PSE-EEK Casa del Pueblon. Bertan izan zen Iñaki Arriola, sozialista gipuzkoarren idazkaria. Orain arteko ibilbidearen balantzea egin zuten, eta azpimarratu zuten: «botoak IU edo

Podemosera ez desbideratze-ko, garrantzitsua da ezkerreko jendeak PSE-EE bozkatzea».

Ricardo Crespo Hernaniko alkategaia ere goraitatu zuten.

Autobusa, Kursaalerako Bestalde, PSE-EEK ohar batean

jakinazai du Pedro Sanchez PSOEko Idazkari Nagusia Kursaalen izango dela urtarri-laren 10ean, asanblada irekian. Bertara joateko autobusa jarriko du Hernaniko PSE-EEK. Casa del Pueblon izena eman besterik ez dago. ■

■ OSIÑAGA

Santo Tomas festan ere Mus Txapelketa

Osiñagako auzotarrek ederki pasa zuten Santo Tomas egunean. Olaizolan egin zen mus txapelketan, 16 bikotek hartu zuten parte, eta sariak izan ziren aurreneko lauak: Joxe Angel Etxeberria eta Xabier Etxeberria; Fernando Narro eta Bizente Arnaiz; Joxe Errazkin eta Pako Perez; eta Balentin Urdangarin eta Joxe Angel Belaizaran. Gabonetako saskia, berriz, Antzine de la Cruzek jaso zuten. ■



■ GOIZ EGUZKI

Irabazle franko, udazken-neguko jokoetan

Santo Tomas eguna gogotik ospatu zuten Goiz Eguzkin. Batetik, gabonetako saskiak zozketatu zituzten. Irabazleak: Juana Sedano, Maria Teresa Milagros Osa eta Silvio Martin. Udazkeneko jokoetako sariak ere banatu zituzten: musean, Primitivo Gonzalez-Luis Lozano eta Teodoro del Rio-Evaristo Garcia; tutean, Jose M. Arenal-David Inclan eta Manolo Morato-Hipolito Prieto; punttuan, Lukas Yuste-Florian Martin eta Patxi Apeztexea-Eugenio Urruzola; eskoban, Sabino Mateos-Gabriel Asensio eta M. Dolores Anabitarte-M. Paz Lunaro. Kaleko jokoetan, berriz, emakumezkoetan, M. Paz Lunaro, Josefa Sanchez, Angeles Manso eta Vicenta Lopez, eta gizonezkoetan, Francisco Navas, Pedro Mugerza, Jose Iglesias, Jesus Brillo, Jose Miguel Arana, Eugenio Urruzola, Francisco Moya eta Antonio Mujika. ■

■ ANBOTO TABERNA

Mus Txapelketa, ostiralean

Ostiralean Gabonetako Mus Txapelketa jokatu da Anboton, 21:30etan hasita. Lehenbailehen eman behar da izena. Izan ere, apuntatzen den jende kopuruaren arabera zehaztuko baitituzte. ■

■ URTE ZAHAR EGUNEKO ERRONDA

Errondarako zita, Urte Zahar egunean

Ohitura Zaharrak eta Bertso Eskolako kideek gogorarazi dute, aurtan ere aterako direla bertsoetan, Urte Zahar eguneko errondan. Arratsaldeko 17:30etan jarri dute zita. ■

■ KRONIKA

Eguberri egunean, Kronikarik ez

Bihar Eguberri eguna dela-eta, ez da Kronikarik argitaratuko. Abenduaren 26an aterako da berriro. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† ISAAC ETXEBERRIA ELIZALDE

HERNEGUN hil zen, 82 urte zituela

Betiko izango zara gure oroimenean.

Paquita, M^a Jesus, Xavier, Roque eta M^a Carmen, Nerea eta Jose Antonio, Pablo eta Izaskun, Mikel, Saioa eta Aitor, Ane eta Jabi, Xabier, Paula eta Jare.

Goizuetan, 2014ko abenduaren 24an

ESKERTZA

Carmen Alcain Aramburu

(Luis Galardiren alarguna)

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Haren senideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita bere hiletara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2014ko abenduaren 24an

Helbidea: Agustindarren plaza

Joaquin Iceta Pagola
1963ko urriaren 11n hil zen

Mayi Pikabea Ducaz
2011ko urtarrilaren 1ean hil zen

Joxe Igariz Etxeberria
2004ko abenduaren 25ean hil zen

Aspaldi joan zineten, baina betirako zaudete gure bihotzean, maite zaituztegu

ZUEN SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRLOBAK ZURE EMAZTE, SEME-ALABAK ETA BILOBAK

Hernanin, 2014ko abenduaren 24an

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, esperientziarekin. Urtarrilean hasteko. Deitu: 600 668 957

Alokatzeko 3 gelako etxebizitza beharra daukagu. Deitu: 618 120 340

2. eskuko emakume bizikleta erosiko nuke. Deitu: 688 665 045

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)